

BESTELAKO XEDAPENAK

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA

2248

EBAZPENA, 2015eko maiatzaren 13koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, etxebizitzetan eta etxejabeen elkarteetan instalazio elektrikoak berritzeko inbertsioak sustatzeari begirako laguntzen deialdia argitaratzen duena. – 2015. urtea.

Energiaren Euskal Erakundea zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren mendekoa, eta energia aurrezte eta energia-efizientzia, energia-baliabide berriztagarriak, energia-dibertsifikazioa eta energia-azpiegituren sustapena bultzatzeko jardunak bete behar ditu Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) eremuan.

Ildo horretan, Energiaren Euskal Erakundea hainbat ekintza garatzen ari da 2020ko Euskadiko Energia Estrategian (3E-2020) bildutako helburuak betetzeko. Jardun horien artean aipatzekoa da zenbait laguntza programa abian jartzen dituela, energia-efizientzia sustatzeko eta energia berriztagarriak aprobetxatzeko jarduera-sektore guztietan.

Beraz, laguntza programa hau eratu da instalazio elektriko zaharren berrikuntza sustatzeko helburu nagusiarekin, etxebizitzetan eta etxejabeen elkarteetan eskura diru laguntzak jarritz, 25 urte edo gehiago dituzten behe tentsioko instalazio elektrikoak berritzeari begira, eta Behe Tentsioko Araudi Elektroteknikoa betez gero, dagokien Behe Tentsio Ziurtagiria eskuratzeko izapideak egin dituztenak.

Adierazitako guztiagatik, hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.– EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendaritza-organoen eginkizunak arautzen dituen otsailaren 3ko 10/2015 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, lehengo Dekretua bigarrenagoz aldatzen duena, 2015eko etxebizitzetan eta etxejabeen elkarteetan instalazio elektrikoak berritzeko inbertsioak sustatzeko laguntzen programari dagozkion oinarri erregulatzailleak onartzea. Programa-aren edukia Ebazpen honekin batera doa, I. eranskin gisa.

Bigarrena.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Lege Dekretuaren 49.2 artikuluekin bat etorriz, 2015eko etxebizitzetan eta etxejabeen elkarteetan instalazio elektrikoak berritzeko inbertsioak sustatzeko laguntzen programari dagozkion oinarri erregulatzailleak onartzen dituen Ebazpen hau, oso-osorik, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Bilbao, 2015eko maiatzaren 13a.

Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,
PILAR URRUTICOECHEA URIARTE.

ETXEBIZITZETAN ETA ETXEJABEEN ELKARTEETAN INSTALAZIO ELEKTRIKOAK BERRITZEKO INBERTSIOEI LAGUNTZAK EMATEKO PROGRAMA

1.- HELBURUA ETA PROGRAMAREN NONDIK NORAKOA

1.1.- Laguntzen programa honen helburua hauxe da: instalazio elektriko zaharrak dituzten etxebizitzetan: segurtasuna, energia-eraginkortasuna, baldintzak eta funtzionaltasuna hobetzea; Instalazioak oso potentzia txikiak erabiltzeko diseinatu zirenez gero, gaur egun baliatzen ditugun era guztietako etxetresna elektrikoekin ez dira bateragarriak zenbaitetan.

Hain zuzen ere, arazo hori konpontzeko asmoz, laguntza programa hau eratu da honako helburu honekin: 25 urte edo gehiago duten behe-tentsioko instalazio elektrikoak berritzeko etxebizitzetara eta etxejabeen elkarteetara diru laguntzak ematea, betiere Behe-tentsiorako Araudi Elektroteknikoa (aurrerantzean **REBT-RD842/2002**) betez, behe-tentsioko buletina bideratzen edo betetzen badute («Buletina»).

1.2.- Programa honen barruan ematen diren diru laguntzak itzuli beharrik gabeko diru laguntzak dira.

2.- ONURADUNAK

2.1.- Honakoak izan daitezke laguntza programa honek arautzen dituen laguntzen onuradunak: instalazio elektrikoak berritu nahi duten etxebizitzetara jabeak diren pertsona fisikoak, errentariak edo usufruktudunak eta etxejabeen elkarteak, bai 25 urte edo gehiago dituen instalazio elektrikoak berritzeko, bai Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren jakinarazpena jaso dutenak; jakinarazpen horretan instalazio elektriko akastuna izategatik konponketa egin behar dutela adieraziz.

Pertsona onuraduntzat jotzeko ezinbesteko baldintza izango da, diru laguntza eman aurretik, pertsona fisikoentzat nahiz pertsona juridikoentzat, zergen eta gizarte segurantzaren inguruko betebeharrak edo ordainketak eguneratuak edukitzea.

2.2.- Honako hauek ezin izango dira laguntza programa honen diru laguntzaz baliatu: azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegileko 50.5 artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorraren Antolamendu Printzipioen Legearen Testu Bategina (aurrerantzean **1/1997 LD**) onartzen duena, adierazten diren egoeraren batean dauden pertsonak; baita zigortuta daudenak, administratibo edo penalki, diru laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galarazita dutenak, edo debekuren bat indarrean dutenak eta horretarako gaitasunik gabe uzten dietenak ere.

3.- PROGRAMAREN AURREKONTUA ETA ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Programa honi esleitutako diru-saila edo aurrekontua **berrehun eta berrogeita hamar mila (250.000) eurokoa** da; betiere horretarako Energiaren Euskal Erakundearen (aurrerantzean EEE) aurrekontuetan ezarritako kredituaren arabera.

Laguntza multzo guztien zenbatekoa ez da 250.000 euro baino gehiago izango, edo haren gaurkotzearen ondoriozko zenbatekoa izango dena, indarrean dagoen legearekin bat etorriz, baldin eta EEEk egingo duen diru ekarpenari dagokion aurrekontu aldaketa izaten bada.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (aurrerantzean EHAA) oinarri hauen iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da diru laguntza programa honetara eskabideak aurkezteko epea, eta programari esleitutako diru-saila agortu arte zabalik egongo da.

Nolanahi ere, aipatutako aurrekontua agortu zein ez agortu, 2015eko uztailaren 31n izango da azken eguna diru laguntza eskabideak aurkezteko.

Aurrekontuaren agortzearen berri emango da EHAAn nahiz Interneteko helbide honetan: <http://www.eve.es>

Diru laguntza eskabide osoak aurkeztuta eta bideratzen egongo diren arren, bazter egingo dira, baldin eta esleitutako aurrekontua amaitzen bada; horretarako, EEEko zuzendari nagusiak emango duen ebazpenaren bidez.

4.- DIRUZ LAGUNDUKO DIREN EGITASMOAK ETA DIRU LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

4.1.- Honako egitasmo hauei emango zaie diru laguntza: 2015eko urtarrilaren 1etik eta 2015eko uztailaren 31ra bitartean, etxebizitzetan eta etxejabeen elkarrekin 25 urte edo gehiago dituzten behe-tentsioko instalazio elektrikoak berritzeko egitasmoei, betiere REBT-RD 842/2002 betez eta dagokion Buletina bideratzen badute. Beraz, honako aspektu hauek kontuan hartu behar dira:

- Onuradunak 2015eko urtarrilaren 1a baino lehen edo 2015eko uztailaren 31 igaro ondoren egindako inbertsioen fakturak ezin izango dira laguntza programa honetaz baliatu.
- Aurreko deialdietan EEEk kudeatu dituen diru laguntza programetan (etxebizitzetan eta etxejabeen elkarrekin instalazio elektrikoak berritzeko inbertsioei laguntza emateari buruz) laguntza jaso duten jardueri ez zaie diru laguntza emango.
- Diru laguntza programa honen kontura ezin izango dira diruz lagundu honako jarduerak: Behe Tentsioko Ziurtagiriaren data 2015eko urtarrilaren 1a baino lehenago bada.

4.2.- Berritu nahi den instalazio elektrikoari lotutako etxebizitzak edo etxebizitza multzoak Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean EAE) egon behar dute.

4.3.- Berritu nahi den instalazio elektriko bakoitzeko emango den diru laguntzaren guztizko zenbatekoa inbertsioaren kostu lagungarriaren % 50 izango da. Nolanahi ere, gehieneko diru laguntza deialdi honen barruan ez da 500 euro baino gehiago izango etxebizitzetan berritzeak egiteko eta 1.000 euro baino gehiago etxejabeen elkarrekin berritzeko.

5.- DIRUZ LAGUNDUKO DEN KOSTUA

5.1.- Honako hau hartuko da kostu lagungarritzat: etxebizitzan eta etxebizitza multzoan egingo den instalazio elektrikoaren berritzearen kostua, betiere laguntza programa honen segurtasun eta eraginkortasunari lotutako helburuak bermatuz, eta, beraz, Buletin berri bat sortaraziz.

5.2.- Honako kasu hauek ez dira kostu lagungarritzat hartuko:

- Eskuratutako ondasunei edo fakturatutako zerbitzuei dagokien BEZa eta, oro har, edozein zerga.
- Inbertsioaren ondorioz eragindako finantza-gastuak.
- Argitzeko lineen aldaketak, argitzeko tresnen ordezkapena, pareta-argiak edo aplikeak eta, orokorrean, matxuratuta legokeen babesteko tresnaren baten konponketa edo ordezkapena izan litezkeenak.
- Buletin berri bat sortaraztea ekarriko ez duten jarduerak.
- Eta, orokorrean, behar bezala zehaztu eta definitu gabeko gastu guztiak, edo programa honen helburuak lortzea xede zuzena ez duten gastuak.

6.- DIRU LAGUNTZEI EGINGO ZAIZKIEN MUGAKETA OROKORRAK

6.1.- Beste laguntza batzuekiko bateragarritasun erregimena

Diru laguntza programa honetan aurreikusten diren jarduerak gauzatzeari begira, oinarri hauek arautzen dituzten kasuetan, beste administrazio batzuek edo erakunde pribatuek emandako diru laguntzak bateragarriak izango dira programa honekin, baldin eta honako ezaugarri hauek badituzte: oro har, beste administrazio edota erakunde batek emandako diru laguntzaren ehunekoa EEEK emandako kostu lagungarriaren % 100 edo txikiagoa bada. Horrela ez bada, diru laguntza programa honen kontura emango den laguntzaren ehunekoa aipatutako bi ehunekoen arteko aldean murriztuko da.

Beste administrazio batzuek edo erakunde pribatuek emandako diru laguntzak gauzatzeko badira EEEK emandako diru laguntzaren ebazpenaren ondoren, diru laguntzaren zenbatekoaren gutxitzea ebazpen baten bidez zehaztuko da, diru laguntza ordaindu aurretik emango dena.

7.- DIRU LAGUNTZA ESKATZEKO HELBIDEA

Eskabideak EEEren bulegoan aurkeztuko dira, edo posta ziurtatu bidez, betiere 3. atalean aipatzen diren daten barruan, honako helbide honetan:

EEE – Energiaren Euskal Erakundea

5020 Posta Kutxa

Bizkaia plaza eraikina

Urkixo zumarkalea, 36. 1. solairua

48011 Bilbo

Honako erreferentzia adierazi: **INSTALAZIO ELEKTRIKOEN RENOVE PLANA 2015 ETXEBIZITZETAN ETA ETXEJABEEN ELKARTEETAN INSTALAZIO ELEKTRIKOAK BERRITZEKO INBERTSIOEI LAGUNTZAK EMATEKO PROGRAMA – 2015. URTEA**

8.- DIRU LAGUNTZAK BIDERATZEKO KUDEAKETA ETA PROZEDURA

Diru laguntza pertsona interesatuak eska dezake zuzenean, edo haren ordezkari legalak, azken hau diru laguntzaren onuraduna ezin izango bada ere.

Diru laguntza eskabidea eta honi lotutako dokumentazio tekniko-administratiboa aurkezteko lekua eta epea hauexek dira: 7. atalean helbideari dagokiona eta 3. atalean, berriz, epea azaltzen da.

Zehazki, bertan aurkeztu beharreko dokumentazioa hauexek dira:

Etxebizitzen kasuan

a) **I.1 eranskina.** Diru laguntza jasotzeko eskabidea; bertan eskatzen diren dokumentu teknikoak eta administratiboak hauexek dira:

- Sinatzailearen NANaren kopia.
- Diru laguntza eskatzeko orrian edo inprimakian adierazitako kontu korrontearen (24 digitu) titularra onuraduna dela egiaztatzen duen banketxearen dokumentua; hala badagokio, diru laguntzaren zenbatekoa ordaintzeko.

- Instalazio elektriko zaharra berritzeko inbertsioa egiaztatzen duen faktura xehea (jatorrizkoaren kopia edo kopia konpultsatua), eta bertan, kontzeptu hauexek azaldu behar dira:
 - Egindako instalazio elektrikoaren berrikuntzaren deskribapen laburra, berritzea egiten den etxebizitzaren helbidea adieraziz.
 - Berrikuntzaren kontzeptuan sartzen diren jardueren nondik norako zehatza.

Fakturan aipatutako kontzeptuak azaltzen ez badira, fakturarekin batera dagokion aurrekontua aurkeztu beharko da, instalatzaileak sinatuta eta zigilua emanda; bertan argi agertuko da kontzeptu teknikoaren zehaztapena, instalazio elektriko zaharraren berritzea zehaztasunez identifikatzea ahalbidetuko duena.

- **Behe-tentsioko Instalazio Elektrikoaren Ziurtagiria (Buletina), Industria lurralde bulegoak** zigilua emanda.
- b) **II. eranskina.** Aurkezten duen proiektu bera egiteko, beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu bati eskatutako edota emandako beste diru laguntzei buruzko adierazpena. Beste diru laguntza osagarririk jaso ez bada ere, dokumentu hau aurkeztu beharko da.
- c) **III. eranskina.** Onuraduna izateko bateraezintasuna dakarren zigor edo debeku administratibo edo penalik ez izateari buruzko adierazpena.

Etxejabeen elkarteen kasuan

- d) **I.2 eranskina.** Diru laguntza jasotzeko eskabidea, behar bezala beteta eta bertan eskatzen diren dokumentu administratibo hauek:
 - Sinatzailearen NANaren kopia (etxejabeen elkartearen presidentea).
 - 2015eko aldirako etxejabeen elkarteko presidente hautatzeko aktaren kopia.
 - Etxejabeen elkartearen IFKren kopia.
 - Diru laguntza eskatzeko orrian edo inprimakian adierazitako kontu korrontearen (24 digitu) titularrak onuraduna dela egiaztatzen duen banketxearen dokumentua; hala badagokio, diru laguntzaren zenbatekoa ordaintzeko.
 - Etxejabeen elkartearen Instalazio elektriko zaharra berritzeko inbertsioa egiaztatzen duen faktura xehea (jatorrizkoaren kopia edo kopia konpultsatua), eta bertan, kontzeptu hauexek azaldu behar dira:
 - Egindako instalazio elektrikoaren berrikuntzaren deskribapen laburra, berritzea egiten den etxebizitzaren helbidea adieraziz.
 - Berrikuntzaren kontzeptuan sartzen diren jardueren nondik norako zehatza.

Fakturan aipatutako kontzeptuak azaltzen ez badira, fakturarekin batera dagokion aurrekontua aurkeztu beharko da, instalatzaileak sinatuta eta zigilua emanda; bertan argi agertuko da kontzeptu teknikoaren zehaztapena, instalazio elektriko zaharraren berritzea zehaztasunez identifikatzea ahalbidetuko duena.

- **Behe-tentsioko Instalazio Elektroaren Ziurtagiria (Buletina), Industria lurralde bulegoak** zigilua emanda.
 - Hala badagokio, Industria lurralde bulegoak emandako jakinarazpenaren kopia, konpondu beharreko akatsez.
- e) **II. eranskina.** Aurkezten duen proiektu bera egiteko, beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu bati eskatutako edota emandako beste diru laguntzei buruzko adierazpena. Beste diru laguntza osagarririk jaso ez bada ere, dokumentu hau aurkeztu beharko da.
- f) **III. eranskina.** Diru laguntza edo laguntza publikoak lortzeko zigortuta, administratibo edo penalki, ez egotearen, edo eskuratzeko aukera galarazita zein debekuren bat indarrean eduki, eta horretarako gaitasunik gabe uzten ez dieten adierazpena.

EEEk diru laguntza eskabidea modu egokian aztertzeke, ebazpena emateko eta bideratzeko, beharrezkotzat jotzen dituen informazioa eta agiri osagarriak eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari.

9.- EBAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Diru laguntza emateko prozedura lehia edo konkurrentzia jarraitua izango da, eta, beraz, eskabideak aurkezten diren hurrenkeraren edo ordenaren arabera aztertu eta bideratuko dira espedienteak, eta modu egokian formulatuak eta beteak egongo diren heinean eta hurrenkeran bideratuko dira.

Eskabidea osatugabe edo akatsekin egongo balitz, 10 eguneko gehieneko epea emango zaio eskatzaileari zuzentzeko, diru laguntzaren eskatzaileak horren berri emateko jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontaktzen hasita.

Goraxeago aipatutako epean dokumentazioa aurkeztuz gero, eskabideari dagokion espedientea bideratzen edo tramitatzen jarraituko da. Epe horretan akatsak zuzendu edo dokumentazioa aurkeztu ezean, eskabidea baztertu egingo da, eskatutako epean ez egitegatik. Aurrekoa gorabehera, eskatzaileak beste eskabide bat aurkezteko eskubidea izango du.

EEEko zuzendari nagusiak ebazpena eman edo jakinarazpena helaraziko dio eskatzaileari sei (6) hilabeteko gehieneko epean, diru laguntza eskaera aurkezten den egunetik kontaktzen hasita; betiere azaroaren 26ko 30/1992 Legearen arabera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideaz diharduena («30/1992 Legea») eta bertan adierazten den modua bermatzeko bideak jarritz.

Ebazpen horretan diru laguntza jasotzen duen proiektuaren irismena, diru laguntzaren zenbatekoa eta intereseko beste alderdi batzuk azalduko dira. Ebazpena eskaerari ezezkoa emateko bada, ordea, zioak edo argudioak azalduko dira.

Ebazpen horren kontra, prozedura administratiboari amaiera ematen diona, interesdunek hautazko birjartze errekurtsioa jar dezakete EEEko Zuzendaritza Nagusiaren aurrean hilabeteko epearen barruan, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa Bilbon dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita. Hori guztia, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 116. eta 117. artikuluek diotena betez eta uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46.1 artikuluaekin bat etorriz, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena (**29/1998 Legea**).

Diru laguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, betiere onuraduna izateko diru laguntzen araudiek ezartzen dituzten gutxieneko betekizunak babestuz, diru laguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezake.

10.– DIRU LAGUNTZAK ORDAINTZEA

Diru laguntza programa honek ematen dituen laguntzaz ezin izango dira baliatu honako hauek: EAEko Administrazio Orokorretik, bere erakunde autonomiadunetik edo EEEtik jasotako diru laguntza edo laguntzari lotutako diru kantitateak itzultzeko betebeharra duten pertsonak. Egoera horretan egonez gero, itzultzeko kantitatea ordaintzeko borondatezko aldian edo betearazten ari den adierazi eta aztertu beharko da.

Proiektuarekin zerikusia duen dokumentazio justifikagarri guztia aurkeztuta EEERI, diruz lagunduko diren jardueren nondik norakoa eta gastuak egiaztatzeko EEERen aldetik, Programa honen 8. oinarrian adierazten den bezala, eskatzaileak edo onuradunak adierazitako banketxeko kontu korrontean egingo du EEEK diru laguntzaren ordainketa.

11.– IKUSKAPENAK

Diru laguntza emateko ebazpena eman ondoren, EEE Energiaren Euskal Erakundeak ikuskapen teknikoak «in situ» egin ahal izango du, eta bertan zenbait argazki adierazgarri egingo dira, adierazitako inbertsioa burutu dela egiaztatzeko asmoz. Ikuskapena egingo zaien onuradunei aldeztu aurretik idazki bat bidaliko zaie haren berri emateko. Ikuskapena egiteko betebeharra du eskatzaileak, eta, beraz, onartu beharra du.

Jakinarazpena bidali ondorengo bi asteren barruan, EEEK onuradunari ikuskapen teknikoak edo ekonomikoa «in situ» egingo duela jakinarazi ondoren, adierazitako inbertsioa burutu dela egiaztatzeko asmoz, ezin izango balitz ikuskapena egin, EEERekin zerikusia ez duten arrazoiak tarteko, idatziz jakinaraziko zaio onuradunari hamabost (15) egun baliaduneko epea izango duela beste hitzordu bat egiteko, ikuskapena egin ahal izateko. Horrela gertatu ezean, EEEK diru laguntza baliogabetzeko espedienteari ekingo dio, diru laguntza guztia baliogabetzeko xedez.

Ikuskapenean hartutako informazioa eskabidean aurkeztu den dokumentazioarekin kontrastatu ondoren, eta hasieran emandako diru laguntza kantitatea txikiagoa izan behar dela, edo ez dagokiola diru laguntzarik jasotzea ondorioztatuko balitz, EEEK beste ebazpen bat emango luke eta, hala badagokio, emandako diru laguntzaren zati bat edo kantitate osoa itzultzeko eskatuko luke, legezko beste bide batzuk hartzeko eta zigorrak aplikatzeko eskubideari uko egin gabe.

Kontrako kasua gertatuz gero, hau da, hasieran emandako diru laguntza kantitatea handiagoa izan behar dela ikusiz gero, ez da beste ebazpen bat emango EEERen aldetik. Izan ere, onuradunak aurkeztutako informazioan akats edo gabezien presentzia, EEEK eman beharreko diru laguntzaren zenbatekoari zuzenean eragiten baldin badio, eta ez diru laguntza eskabidearen bideratzeari dagokionez, eskatzailearen edo onuradunaren erantzukizuna izango da soil-soilik.

12.– ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Deialdi edo programa honen bitartez arautzen diren diru laguntzen onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Laguntzen programa honen arabera, emandako diru laguntza onartzea. Diru laguntza eman zaiola jakinarazten dion agiria edo jakinarazpena jaso eta hamabost (15) eguneko epean berariaz eta idatziz uko egiten ez badio diru laguntzari, onartu egin duela ulertuko da, bai deialdian zein ebazpenean ezartzen diren baldintza ekonomikoei dagokienez, bai gainerako baldintza edo alderdi guztiei dagokienez.
- b) Diru laguntza zertarako eman zaion, horretarako erabiltzea.
- c) Kontrol Ekonomiko Bulegoari eta Kontu Publikoen Euskal Auzitegiari ematea eskatu ahal dioten informazioa, diru laguntza hauek kontrolatzeko dituzten zereginei jarraiki.
- d) Helburu bera duen proiektua egiteari begira, beste administrazio, erakunde publiko edo pribatu bati eskatutako edota horiek emandako diru laguntzaren berri ematea EEE Energiaren Euskal Erakundeari.

- e) Garatuko den egitasmoen lotutako instalazioek indarrean dagoen legeria edota araudi guztiak bete beharko dituzte, eta haien osagaiek dagokion erakunde eskumendunaren homologazioa eduki beharko dute. Beraz, onuradunak onartzen du egitasmoak bete egingo duela aplikagarria izan dakioken legeriaren alderdi guztietatik: teknika, hirigintza eta gainerako ezaugarriak kontuan hartuta.
- f) Diru laguntza ematearekin zerikusia duen edozein aldaketa objektiboa zein subjektiboaren berri ematea EEeri.
- g) EEEK hala eskatzen baldin dio, onuradunak konpromisoa hartzen du lortutako emaitzen bilakaeraren berri emateko.

13.– EZ BETETZEA ETA DIRUA ITZULTZEA

Deialdi edo programa honetan ezarritako eskakizunak, aplika daitezkeen gainontzeko arauak edo diru laguntza emateko ebazpenean jarritako baldintzak bete ezik, ez betetze espedientea ireki, eta diru laguntzak ezeztatu eta itzuli egin beharko dira, legezko korrituekin batera. Hori guztia, honako legeriak xedatutakoa betez: 1/1997 Dekretu Legegilea eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren II. idazpurua, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kontura emandako diru laguntzen bermeei eta itzulketei buruzko araudi orokorra arautzen duena, eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete behar dituzten eskakizunak, arautegia eta betebeharrak finkatzen dituena. Nolanahi ere, horrek ez du salbuesten bestelako zehapen eta lege-egintzetatik.

Ez betetze espedienteak hasarazteko eta ebazteko eskumena, eta hala dagokionean, emandako diru laguntza aldeztu edo osorik itzularazteko ebazpenak, EEEKo zuzendari nagusiak du.

14.– INFORMAZIO KLAUSULA ESKATZAILEEI

EEEk, Bizkaia plaza erakinean, Urkixo zumarkalea, 36. 1. solairua, 48011 Bilbon, helbideratua dagoenak, hauxe jakinarazten dizu: zuk emandako datu pertsonalak, edo geroago eraturiko direnak, EEeren ardurapean izango diren fitxategietan sartuko direla. Datu horiek zure eskabidea aztertu eta kudeatzeko erabiliko dira, eta hala badagokio, eskabide horretan eskatzen den diru laguntza ematekotan, horren ondorioz sor litezkeen harremanak bideratu eta gauzatzeko; betiere, aplikagarria izan daitezkeen araudia betez.

Nolanahi ere, onuradunak datu horiek ikusteko, aldatzeko, ezabatzeko eta inori ematen ez uzteko eskubideak erabil ditzake, datu pertsonalak babesteko legeriak xedatutakoari jarraiki. Horretarako, goraxeago aipatzen den EEeren helbidera idazki bat bidali behar du, bertan nor den behar bezala egiaztatuz.

Aurrekoaz gain, onuradunak honako konpromiso hau hartzen du: eskabidearekin zerikusia duen edozein pertsona fisiko/juridikoren datu pertsonalak EEeri eman aurretik, pertsona fisiko/juridiko horri aurreko paragrafoetan azaltzen diren testuen edukiaren eta gainerako eskakizunen berri emateko. Horretaz gain, EEeri datu pertsonalak era zuzenean emateko aplikagarriak izan litezkeen araudi guztiak betetzeko konpromisoa hartzen du, EEEK bestelako jarduera gehigarri egin beharrik gabe. Era berean, EEeri emandako datuetan gerta litezkeen aldaketa edo ezabaketan berri emateko konpromisoa hartzen du.

15.– AZKEN XEDAPENAK

- 1.– EEeren erabakiak izaera administratiboa du, eta administrazioarekiko auzitegiei dagokie EEEK kudeatzen dituen diru laguntzekiko jurisdikzio-eskumena.
- 2.– Laguntza Programa honek emandako diru laguntzari esker egiten diren instalazioen irudien erabilera egiteko eskubidea du EEEK.
- 3.– Oinarri hauetan aurreikusten edo jasotzen ez den guztietan 1/1997 Dekretu Legegileak xedatutakoa beteko da.


EVE | Ente Vasco
de la Energía

ETXEBIZITZETAN ETA ETXEJABEEN ELKARTEETAN INSTALAZIO ELEKTRIKOAK BERRITZEKO DIRU LAGUNTZA PROGRAMA 2015
**I.1 ERANSKINA. DIRU LAGUNTZA ESKABIDEA 2015
ESKATZAILEAREN DATUAK ETA DOKUMENTAZIO TEKNIKOA ETA ADMINISTRATIBOA
ETXEBIZITZAK**
Eskatutako datu guztiak LETRA LARRIZ idatzi behar dira
A - SELE - 2015

_____ jn./and., NAN zk.: _____
 hori ordezkatzuz: _____ (hala badagokio) _____, NAN zk.: _____
 2015EKO ETXEBIZITZETAN ETA ETXEJABEEN ELKARTEETAN INSTALAZIO ELEKTRIKOAK BERRITZEKO DIRU LAGUNTZA PROGRAMARA aurkeztuz, hurrengo dokumentazioa aurkezten dut:

Eskatzailearen helbidea:

Helbidea:	_____	Probintzia:	_____
Udalerrria:	_____	P K:	_____
E-posta:	_____	Telefonoa:	_____
Kontu k. zk.:	_____ (24 digituak adierazi)	Mugikorra:	_____

Dokumentazioa bidaltzeko helbidea (bakarrik eskatzailearen helbidea ezberdina den kasuan osatu):

Izena eta abizenak:	_____	E-posta:	_____
Helbidea:	_____	Probintzia:	_____
Udalerrria:	_____	P K:	_____

Kontakturako pertsonaren datuak (bakarrik eskatzailea ezberdina den kasuan osatu):

Izena eta abizenak:	_____	Telefonoa:	_____
E-posta:	_____	Mugikorra:	_____

Jarduera izango den tokiaren datuak (bakarrik eskatzailearen helbidea ezberdina den kasuan osatu):

Helbidea:	_____	Probintzia:	_____
Udalerrria:	_____	P K:	_____

DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA ETA TEKNIKOA:

- Sinatzailearen NANaren kopia.
- Erroldatze ziurtagiriaren kopia, NAN agirian ohiko etxebizitza gisa agertzen ez bada.
- Eskatzailearen kontu korrontearen eta titulartasuna egiaztatzen duen banketxearen dokumentua.
- Instalazio elektrikoa berritzeko inbertsioari dagokion faktura xehea.
- Behe-tentsioko Instalazio Elektrikoaren Ziurtagiria (Buletina), Industria lurralde bulegoak emanda.

Lekua eta eguna: _____
 Izena eta abizenak: _____
 Sinadura: _____

2015eko maiatzaren 22a, ostirala


EVE Ente Vasco
de la Energía

ETXE BIZITZETAN ETA ETXEJABEEN ELKARTEETAN INSTALAZIO ELEKTRIKOAK BERRITZEKO DIRU LAGUNTZA PROGRAMA 2015
**I.2 ERANSKINA. DIRU LAGUNTZA ESKABIDEA 2015
ESKATZAILEAREN DATUAK ETA DOKUMENTAZIO TEKNIKOA ETA ADMINISTRATIBOA
ETXEJABEEN ELKARTEA**

Eskatutako datu guztiak LETRA LARRIZ idatzi behar dira

A - SELE - 2015

 jn./and., NAN zk:

 hau ordezkatzuz: (norbait ordezketuz gero) NAN zk.:

2015EKO ETXE BIZITZETAN ETA ETXEJABEEN ELKARTEETAN INSTALAZIO ELEKTRIKOAK BERRITZEKO DIRU LAGUNTZA PROGRAMARA aurkeztuz, hurrengo dokumentazioa aurkezten dut:

Eskatzailearen **helbidea**:

Helbidea:	<input type="text"/>	Probintzia:	<input type="text"/>
Udalerria:	<input type="text"/>	P K:	<input type="text"/>
E-posta:	<input type="text"/>	Telefonoa:	<input type="text"/>
Kontu k. zk.:	<input type="text"/> (24 digituak adierazi)	Mugikorra:	<input type="text"/>

Dokumentazioa bidaltzeko helbidea (bakarrik eskatzailearen helbidea ezberdina den kasuan osatu):

Izen-abizenak:	<input type="text"/>	E-posta:	<input type="text"/>
Helbidea:	<input type="text"/>	Probintzia:	<input type="text"/>
Udalerria:	<input type="text"/>	P K:	<input type="text"/>

Kontakturako pertsonaren datuak (bakarrik eskatzailea ezberdina den kasuan osatu):

Izen-abizenak:	<input type="text"/>	Telefonoa:	<input type="text"/>
E-posta:	<input type="text"/>	Mugikorra:	<input type="text"/>

Jarduera izango den tokiaren datuak (bakarrik eskatzailearen helbidea ezberdina den kasuan osatu):

Helbidea:	<input type="text"/>	Probintzia:	<input type="text"/>
Udalerria:	<input type="text"/>	P K.:	<input type="text"/>

DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA ETA TEKNIKOA:

- Sinatzailearen NANaren kopia.
- Elkarteko presidentearen izendapen aktaren kopia.
- IFZren kopia.
- Eskatzailearen kontu korrontearen eta titulartasuna egiaztatzen duen banketxaren dokumentua.
- Instalazio elektrikoa berritzeko egindako inbertsioaren fakturaren kopia.
- Behe-tentsioko Instalazio Elektrikoaren Ziurtagiria (Buletina), Industria lurralde bulegoak emanda.
- Hala badagokio, Industria lurralde bulegoaren jakinarazpenaren kopia, konpondu beharreko akatsez.

Lekua eta eguna: Izena eta abizenak:

Sinadura:

EEEEk, Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36, 1. solairua, 48011 Bilbon helbidea duenak, hauxe jakinarazten dizu: zuk emandako datu pertsonalak edo geroago sortuko direnak fitxategietan sartuko direla eta EEEren ardurapean geratuko direla. Datu horiek zure eskabidea aztertu eta kudeatzeko erabiliko dira, eta hala badagokio, eskabide horretan eskatzen den diru laguntza ematekotan, horren ondorioz sor litezkeen harremanak bideratu eta gauzatzeko; betiere, aplikagarria izan daitekeen araudia betez. Nolanahi ere, datu horiek ikusteko, aldatzeko, ezabatzeko eta inori ematen ez uzteko eskubideak erabil ditzakezu, datu pertsonalak babesteko legeriak xedatutakoari jarraiki. Horretarako, goraxeago aipatzen den EEEren helbidera idazki bat bidali behar duzu, bertan nor zaren behar bezala egiaztatuz. Eskatzaileak, EEEri edozein pertsona fisiko/juridikoaren datu pertsonalak eraztu baino arinago, konpromezu hartzen du, aurkezpenaren egonaz, eta bere kasuan, eskabide honen burutzea eta gero, pertsona horri informatuko diola aurreko lerroetan agertzen den informazioaz eta aplikatu ahalzeko edozein beste baldintza bete izanez EEEri datu pertsonalen emate zuzenerako eta EEEak gainerako ekintzarik bete behar ez izateko. Hala ere, eman diren datuen zuzenketak eta baliogabetzeak EEEri komunikatzeko konpromisoa hartzen du.


EVE | Ente Vasco de la Energía

ETXEBIZITZETAN ETA ETXEJABEEN ELKARTEETAN INSTALAZIO ELEKTRIKOAK BERRITZEKO DIRU LAGUNTZA PROGRAMA 2015
II. ERANSKINA. BESTE DIRU LAGUNTZA BATZUK
ESKATUTAKO EDOTA EMANDAKO BESTE DIRU LAGUNTZA BATZUEI BURUZKO ADIERAZPENA - 2015. URTEA

Eskatutako datu guztiak letra LARRIZ IDATZI behar dira

A - SELE - 2015

 _____ jn./and., NAN zk.: _____
 hau legez ordezkuz: _____ (hala badagokio) _____, NAN zk.: _____

HAUXE ADIERAZTEN DU:

- I. Diru laguntza programaren oinarriak ezagutzen dituela, eta bereziki, programa honetan jasotzen diren jardueren helburu bera duten ekintzak aurrera eramateari begira, beste administrazio publiko edo elkarte pribatuek emandako diru laguntzekin bateragarriak izateko aukeraren ingurukoa.
- II. Diru laguntza programan ezarritako helburu bera duten jarduerak gauzatzeko, beste erakunde publikoei edo elkarte pribatu batzuei honako diru laguntza hauek eskatu dizkiela:

Adm. Publikoa	Diru laguntzaren xedea	Data

 EZ duela eskatu beste administrazio publiko edo elkarte pribatuei diru laguntzarik, diru laguntza eskabide aurkezten duen proiektu bera gauzatzeko.

- III. Beste administrazio publiko edo elkarte pribatuetatik diru laguntza **jasotzeko ebazpenaren jakinarazpena** hartu duela, diru laguntza eskabide aurkezten duen proiektu bera gauzatzeko, aipatutako dokumentuaren kopia bat erantsiz.

Adm. Publikoa	Diru laguntzaren xedea	Data	Diru laguntza

 EZ duela beste administrazio publiko edo elkarte pribatuetatik diru laguntza jasotzeko ebazpenaren jakinarazpena hartu, diru laguntza eskabide aurkezten duen proiektu bera gauzatzeko.

Lekua eta data: _____

Izena eta abizenak: _____

Sinadura:

2015eko maiatzaren 22a, ostirala


EVE | Ente Vasco
de la Energía

**ETXEBIZITZETAN ETA ETXEJABEEN ELKARTEETAN INSTALAZIO ELEKTRIKOAK BERRITZEKO DIRU LAGUNTZA
PROGRAMA 2015**
**III. ERANSKINA. ONURADUNA IZATEKO DEBEKU EDO BATERAEZINTASUNIK EZ EDUKITZEARI BURUZKO
ADIERAZPENA**

Eskatutako datu guztiak letra LARRIZ IDATZI behar dira

A - SELE - 2015

_____ jn./and., NAN zk.: _____
 legezko ordezkapena eginez: _____ (hala badagokio) _____, IFZ zk.: _____

HAUXE ADIERAZTEN DU

2015eko Etxebizitzetan eta Etxejabeen Elkarteetan Instalazio Elektrikoak Berritzeo Laguntzak Emateko Programaren Oinarrietako 2. atalean (ONURADUNAK) adierazten denarekin bat etorriz:

- a) Azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegileko 50,5 artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorren Antolamendu Printzipioen Legearen Testu Bategina onartzen duena, adierazten diren egoeraren batean ez dagoela ez bera, ezta bere legezko ordezkaria ere, hala badagokio.
- b) EAeko aurrekontu publikoetatik edo sektore publikoetatik jasotako laguntza edo diru laguntzei dagozkien kantitateak itzultzeko betebeharririk ez duela.
- c) Diru laguntza edo laguntza publikoak lortzeko ez dago zigortuta, administratibo edo penalki, edo ez dauka eskuratzeko aukera galarazita zein debekuren bat indarrean, eta horretarako gaitasunik gabe uzten diotena.

Lekua eta eguna: _____

Izena eta abizenak: _____

Sinadura: _____

EEEEk Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36. 1. solairua, 48011 Bilbon helbidea duenak, hauxe jakinarazten dizu: zuk emandako datu pertsonalak edo geroago sortuko direnak fitxategietan sartuko direla eta EEEren ardurapean geratuko direla. Datu horiek zure eskabidea aztertu eta kudeatzeko erabiliko dira, eta hala badagokio, eskabide horretan eskatzen den diru laguntza ematekotan, horren ondorioz sor litezkeen harremanak bideratu eta gauzatzeko; betiere, aplikagarria izan daitekeen araudia betez. Nolanahi ere, datu horiek ikusteko, aldatzeko, ezabatzeko eta inori ematen ez uzteko eskubideak erabil ditzakezu, datu pertsonalak babesteko legeriak xedatutakoari jarraiki. Horretarako, goraxeago aipatzen den EEEren helbidera idazki bat bidali behar duzu, bertan nor zaren behar bezala egiaztatuz. Eskatzaileak, EEEri edozein pertsona fisiko/juridikoen datu pertsonalak erraztu baino arinago, konpromezu hartzen du, aurkezpenean egonaz, eta bere kasuan, eskabide honen burutzea eta gero, pertsona horri informatuko diola aurreko lerroetan agertzen den informazioaz eta aplikatu ahalezko edozein beste baldintza bete izanez EEEri datu pertsonalen emate zuzenerako eta EEEak gainerako ekintzarik bete behar ez izateko. Hala ere, eman diren datuen zuzenketak eta baliogabetzeak EEEri komunikatzeko konpromisoa hartzen du.